

Graça Samo, Emakumeen Mundu Martxako koordinatzailea

«Emakume guztiok matxinatu behar dugu, ez batzuk bakarrik»

Bada nazioarteko mugimendu bat, beren burua halakotzat jotzen duten herri guztiak onartzen dituena. Mugimendu bat, non maila berekoak baitira Quebec, Mozambique eta Kurdistan. Ibilian dabil gainera mugimendu hori, izenean bertan dakar: Emakumeen Mundu Martxa (EMM). Euskal Herrira etorri zen orain dela hilabete mugimenduaren nazioarteko idazkaritza koordinatzen duen Graça Samo, eta Bilgune Feministak maiatzaren 6an antolatu zituen topaketetan hitz egin genuen berarekin. Argi esan zigun: "Martxan jarraituko dugu, emakume guztiok aske izan arte".



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nola hasi zinen militantzia sozial eta politikoa?

Gazteagoa nintzenean, ikasleen mugimenduan hasi nintzen, eta ikasketak amaitu ostean, hainbat GKEtan aritu nintzen lanean: Mozambikeren gerra zibilean geunden, beraz larrialdi-egoeretan jardun nintzen batez ere. Gero, Angolan ere ibili nintzen, gerra zibilean zeuden han ere. Ondoren, Brasileran joan nintzen ikasten jarraituz, eta gizarte-lana egin nuen hainbat favelatan.

Eta militantzia feministan noiz hasi zinen?

2004an, Mozambikera itzuli eta orduan sartu nintzen emakumeen eskubideak eta genero gaiak lantzen zituen erakunde batean, Forum Mulher. Orduan ezagutu nituen gertutik emakumeen borroka. Mozambikeren, garai hartan, ez zegoen

mugimendu feministarik bere horretan. Feminista akademikoak zeuden, baina zuriak ziren asko, eta zaila zen beren burua feministatzat jotzen zuen emakume mozambiketar arruntik topatzea.

Zer bide egin zenuen erakunde horretan?

Zuzendari aritu nintzen hamar urtez, eta nire helburua zen gauzak apurtxo bat aldatzea eta erakunde erradikalago bihurtzea. Enpresa ikasketak eginak nituen, helburu konkretuak lortu nahi nituen. Adibidez, ni erakundearen aritu bitartean, Mozambikereko politika publikoetan eragiten saiatu ginen, eta besteak beste, emakumeen aurkako etxe barruko indarkeriari buruzko lege bat eta abortu libre eta segurua eskaintzeko beste bat onar zitezela lortu genuen. 2013an eskaini zidaten EMMko nazioarteko idazkaritzara sartzea, eta urtebetez

bi lanetan aritu nintzen, baina gehiegi zen, eta 2014an utzi nuen Forum Mulher, bete-betean EMMn jarduteko.

Graça Samo Oiz

1968, Coccoene, Mozambique

Enpresa ikasketak egin zituen jaioterrian, eta tokiko garapenari eta generoari buruzkoak, berriz, Brasilen. Forum Mulher erakundearen zuzendari zuten hamar urtez, eta 2013az geroztik, Emakumeen Mundu Martxako nazioarteko idazkaritza koordinatzen du. Maputon bizi da, eta irakasle dabil Mozambikereko Unibertsitate Politeknikoan, Administrazio, Zientzia eta Teknologia Sailean.



Zer egoeratan dago Mozambique gaur egun?

Amets batetik esnatu garela dirudi. Mozambiquek 1975ean lortu zuen independentzia, eta gobernu sozialista ezarri zen, ia komunista. Koloniarrenak izandako jabetza guztiak nazionalizatu ziren: etxeak, lurrak, enpresak eta abar. Gainera, baliabideak birbanatu ziren, hezkuntzarako sarbidea erraztu...

Urtebete beranduago, ordea, 1976an, gerra zibila hasi zen, eta 1992ra arte iraun zuen, pentsa. Sinetsirik geunden orduantxe hasiko zela benetako iraultza, hura zela gure herrialdea benetan garatzen hasteko garaia, baina armak utzi bezain pronto, merkataritza askeko akordioak etorri ziren, eta trantsizio automatiko bat hasi zen, neoliberalismora bidean. Jendearen bizitza hobetu beharrean, okerrera egin zuen, zeren, gerrak iraun bitartean, sozialismoak eraikitako horren gainean bizi izan ginen; orain, ordea...

Gure herrialdeko jende gehiena landa-eremuetan bizi da eta hain zuzen hara joaten dira enpresa multinazionalak; gune horietan bizi direnek informazio gutxi daukate, eta askoz zaurgarriago dira atzerriko enpresen aurrean.

Multinazionalen etorrerak nola eragiten die emakumei?

Merkataritza askeko akordioen ondorioz, emakumeek beren lurrak galdu dituzte, bai eta beren enpleguak ere; bestalde, lana edukita ere, oso kalitate baxukoa da beti, eskolatzeko maila halakoa delako. Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria handitu egin da. Eztabaida hori ateratzen da behin eta berriro, ea benetan hazi ote den indarkeria, edo ea komunikabideek gehiago aipatzen duten. Nire iritziz, benetan ari da handitzen.

Zer dela-eta?

Gobernua izugarri militarizatu da azken bizpahiru urtean, goitik behera armatu dira, eta mugimendu sozialek ezer antolatu nahi duten bakoitzean, baita maiatzaren lehenean ere, hantxe ateratzen dira tanke militarrek eta robocop gizonak... Beldurra eta segurtasunik eza dira nagusi. Gobernuak hori egiten badu arlo publikoan, zer gertatuko da ba arlo pribatuan? Indarkeria erreproduzitzen da. Indarkeriak alderik alde zeharkatzen du Mozambiqueko gizartea.

Adibiderik?

Bai, hain justu ere, bi kasu guztiz izugarri gertatu ziren iaz. 2014ra arte agintean izan zen lehendakariaren alaba tiroz hil zuen haren senarrak, abenduaren 14an. Eta, hiru hilabete lehenago, Graça eta Samora Machel gure iraultzaiko buruzagi eta politikarien alabari sekulako jipoia eman zion bere bikotekideak, eta begi bat atera zion. Pentsa zer mezu jasotzen ote duten emakume arruntek, halako figura publikoei gauza horiek gertatzen bazaizkie.


Nola ari zarete antolatzen indarkeria gero eta handiago horren aurrean?

Bada, guretzat, EMM aukera itzela izan da, zeren ikuspegia aldatu dugu. Hasiera batean uste genuen indarkeria amaituko zela horren aurkako lege bat lortzen bagenuen, eta garai hartan, 2000ko hamarkadan, gure onenak eman genituen halako legeak lortzeko. Baina gero konturatu ginen ez zutela askorako balio; gainera, azkenean onartzen dituzten legeek ez dute zerikusirik geuk proposatu ditugunekin, mami guztia kentzen diote.

Beste alde batetik, abortuaren legearen kasuan, onartu da, bai, baina emakume asko hiltzen da oraindik abortu klandestinoen ondorioz, zeren abortatzen duten emakume eta neskatok oso estigmatizatuta daude gizartean, eta ondorioz, ez dira erietxe publikoetara aise joaten. Beraz, orain, andreen kontzientzia eta boteretzea ari gara lantzen, uler dezaten indarkeria egiturazkoa dela, eta kulpabilizazioari aurre egin behar diotela.

Baduzue harremanik beste gizarte mugimenduekin?

Afrika da neoliberalismoaren erasoak bortitzen pairatzen ari den kontinentea, eta hala ere, Afrikan dira gizarte mugimenduak ahulen. Zergatik? Bada GKEen sukarrak Afrikari eraso ziolako bereziki. Egitura horrek eta nazioarteko finantza-mekanismoek zeharo suntsitu zituzten sare komunitario zaharrak, GKEen adarrek hartu zuten dena, eta modu oso kapitalistan antolatu. Afrika salbatuko dutela uste dute oraindik ere Europak eta AEBek, garapenaren diskurtso guztiz kolonialista hori darabilte, inbertsioak eta laguntza humanitarioa sustatuz, baina horrek ez dakar mendekotasuna eta zorra handitzea besterik.



Hitza hartu duzu, Emakume abertzaleen topaketa feministetan, eta borroka anti-kolonialistaren garrantzia azpimarratu duzu.

Bai, garrantzitsua da hemen aipatzea. Hegoalde globaleko emakumeok gure ikuspegia lantzen ari gara, kontzientzia hartzen, baina zuek ere hausnartu behar duzue gaiaz, globalizazioa abiatu zen eta enpresa horiek guztiak datozen herrialdeetako jendeak berrikusi behar duzue ea zer-nolako harremanak ari zaren eraikitzen hegoaldearekin. Hel diezaiogun kontsumoari, adibidez. Nola sustatzen da hemen kontsumoa, nor ari da hemengo kontsumo merkearen prezioa ordaintzen? Mango gisako denda batean jaka bat 10 edo 20 euroan erosten duzuenean, zergatik da hain merkea? Bada hegoalde globaleko emakume batek ordaindu duelako prezio hori, esklabo batek bezala egin baitu lan, atsedetik eta lan-baldintza duinik



» “Afrika da neoliberalismoaren erasoak bortitzen pairatzen ari den kontinentea, eta hala ere, Afrikan dira gizarte mugimenduak ahulen. Zergatik? Bada GKEen sukarrak Afrikari eraso ziolako bereziki”

gabe. Edo, bestela, nondik dator gure argia, gure energia elektrikoa? Ondotxo dakigu konpainia hidroelektrikoek, adibidez, komunitateak suntsitzen dituztela. Arazo horiei guztiei buruz hitz egin eta hausnartu behar dugu, denok matxinatu behar baikara, ez batzuk bakarrik.

Nola sortu zen Emakumeen Mundu Martxa?

Emakumeen Mundu Martxa nazioarteko mugimendu feminista da, anti-patriarkala, anti-kapitalista eta anti-kolonialista. 1990eko hamarkadan abiatu zen. Quebec-eko emakumeen federazioak martxa bat antolatu zuen, pobrezia eta emakumeen aurkako indarkeria areagotu zirelako. Arrakasta handia bildu zuten, horregatik, nazioarteko deia egin zuten 1998an: herrialde askok erantzun zuten, eta 2000. urtean egin zen lehen ekintza globala. Garai hartan, neoliberalismoa eta pribatizazioa borrokatu nahi

ziren, eragina baitzeukaten hegoalde globalean baina baita iparraldeko langile-klasearen gainean ere. 2000ko ekintza horren ondoren, mugimendua bildu egin zen, eta erabaki zuten borroka ezin zela eten, iraunkorra izan behar zuela.

Zergatik?

Egitura eta sistema baten aurkako borroka zelako, eta egitura hori hainbat modutara agertzen delako, tokiaren arabera. Gainera, lehen ekintza horren ostean, emakumeek askotariko gauzak aldarrikatu eta proposatu zituzten, eta horiek lortzeko herrialdeetako politika publikoetan eta legeetan eragin behar zen, gauzak errotik eta modu iraunkorrean aldatzeko. Horretarako, emakumeek ikasten segi behar zuten, tesuingurua behin eta berriro aztertzen, zapalkuntzak identifikatzeko eta horien aurka egiteko moduak lantzeko.

Oker ez banaiz, 2000. urteko ekintzaren ondorio da EMMren ikurretako bat.

Bai, orduantxe osatu genuen “Emakumeek gizateriari idatzitako gutuna”. Emakumeek eskutitzak idatzi zizkieten beren gobernuei eta Nazio Batuei, tokian tokiko aldarrikapenen berri emanez eta aldaketak eskatuz, eta horiekin eraiki genuen gutun orokor hori.

Bestalde, 2005ean egin genuen gure bigarren ekintza globala, eta emakumeek ohazal bat josi zuten. Herri bakoitzak metro koadro bat ehundu zuen, nahi zuten teknika erabiliz. 30 herri parte hartu zuten, eta beren oihal-pusketa osatu. Ondoren, beren puska hartu eta hurrengo herrira joan behar zuten, piezak elkarri josteko. Horixe da EMMren beste ikurra, elkartasunaren ohazala.

2010eko ekintzan, berriz, ez zineten herri ibili.

Konturatuak ginen gerrak eta militarismoak sekulako eragina daukatela emakumeen bizitzan. Batetik, botere militarra dago, hori litzateke zantzurik garbiena, baina militarismoa bestelako moduetan ere sufritzen dugu emakumeok, instituzioen egitura hierarkikoen bitartez eta bestelako hierarkia batzuen bidez; esate baterako, beldurra sortzen digute, etxean gera gaitezen, geldi eta isilik, indarkeriari aurka egin gabe. Garaitsu hartan, Kongoko Errepublika Demokratikoa izendatu zuten emakumeak bizitzeko tokirik okerrera, sekulako in-

VITORIA GASTEIZ
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek ez galdu



euskara, zure frekuentzian

Oihaneder
euskararen etxea

- **IKIMILIKILIKLIK**
JA Artzeren Unibertsoa
Erakusketa
Maiatzak 26-uztailak 2
- **TTAPA TTAPA, TTAKA TTAKA**
TXALAPARTA jardunaldiak
Sormena ttakunka: txalaparta Artze anaien ibilbidean eta euskal kultura garaikidean > Argibel Euba
Txalaparta digitala: txalaparta eta abangoardiako musikaren arteko ikerketa praktikoa > Enrike Hurtado Hitzaldia
Ekainak 14, 19:00-20:30
Nömadak Tx- Dokumentala
Harkaitz Martinez de San Vicente Ikus-entzuzkoa eta solasaldia
Ekainak 15, 19:00-20:30
Txalaparta jaialdia
Falerina lorategia
Ekainak 17
Txalaparta hastapen lantegia (7-15 urte)
* 11:00 Txalamako elkarte
Txalaparta master-class-a
* 12:00 Hutsun taldea
Txalaparta hutsa – kontzertu didaktikoa
14:00 Hutsun taldea
*Izen-ematea: ekainak 1-4 oihaneder.eus
- **MUNDUA BIZIKLETAZ AMERIKAN**
Ainhoa Perez de Nanclares Koldo Zubizarreta
Ikus-entzuzkoa
Ekainak 13, 19:00-20:30
- **GASTEIZARRAK ARRAUN THE WORLD**
Udako argazki-hizki lehiaketa
Ekainak 21-irailak 21

Gazte sortzaileak beka
[2017ko deialdia]

Gazteek gazteentzat sortutako ekitaldi kulturalak euskaraz 17-35 urte bitartekoentzat Lanak aurkezteko epea:
Uztailak 2
Info +:
www.vitoria-gasteiz/euskara#gazteSortzaileakBeka

Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala



darkeria zegoelako eta indar militar eta paramilitarrek emakumeak bortxatzen zituztelako oso sarri. Beraz, Kibu hirian batu ginen 10.000 emakumetik gora, elkartasunean.

Orain bi urte egin zenuten azken ekintza, 2015ean.

Bai, orduko hartan, hauxe azpimarratu nahi genuen: emakumeok lurralde teoriarik independenteetan bizi arren, preso gauzkate egitura patriarkalak eta gobernuak inposatu ditugun ekonomia-eredu kapitalista neoliberalak. Gainera, enpresa transnazionalak ari dira gure lurraldeak mendearen hartzen, eta halako heziketa bat nagusitu da, zeinaren arabera kanpotik datorrena hobea baita, eta jendeak ez du bere burua den moduan onartzen, beti nahi dute hau ala bestea aldatu. Beraz, aldarrikatu genuen martxan jarraituko genuela harik eta gure gorputzak eta lurraldeak askatu arte, eta herri bakoitzak tokiko arazoei heldu zien, eta horiei aurre egiteko erresistentzia eta alternatibak landu ziren.

Nola uztartzen dituzue denak: etenik gabeko jarduna eta ekintza globalak, nazioarteko mugimendua eta tokian toki antolatzea...?

Tokiko taldeak daude EMMren oinarrian, guk koordinazio nazionalak deitzen diegu, eta haien ardura da beren lurraldeko kideak mobilizatzea eta behar adina aliantza jostea beren borroka aurrera eramateko. Gero, koordinazio

Azken hitza:
Garapena

Mugimendu anti-kolonialista da Emakumeen Mundu Martxa, eta pentsamendua deskolonializatu beharra azpimarratu du Samok, adibidez, garapenaren harira: "Gure herrialde eta nazioak garatzeaz ari garenean, zertaz ari gara? Mendebaldeak bilatu zuen garapen berbera daukagu buruan, hegoaldea kolonizatu zuena, kapitalismoa bultzatu, eta jendea esklabotzara behartu? Ez dugu hori nahi, beraz pentsatu behar dugu nolako garapena izango den gurea, inori lapurtu gabe, natura suntsitu gabe eta jendea esplotatu gabe. Bide luzea da".

.....

bakoitzak bi lagun hautatzen ditu, eta haiek nazioarteko batzordean hartzen dute parte. Batzordeak bi urtean behin egiten ditu nazioarteko topaketak, eta hortxe erabakitzen da EMMk zer ekintza antolatuko dituen. Topaketa horiek dira EMMren unerik politikoena. EMM osatzen duten herri guztietako ordezkariak bildu, bakoitzak bere agenda aurkeztu, eta osoko batzarrean zehazten dugu agenda komun bat. Hurrengo topaketa Euskal Herrian antolatzeko asmoz gaitza. ■